

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2020-10-13(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

9. - BERMEOKO UDALAREN, BERE MENDEKO ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA BERUALAREN AHOALKULARITZA JURIDIKOA ETA EDOZEIN AUZITAN DEFENTSA BURUTZEKO KONTRATAZIO PROZEDURA HUTSIK DEKLARATZEA.

Xedea

Bermeoko Udalaren, bere mendeko Erakunde Autonomoen eta BERUALAREN aholkularitza juridikoa eta edozein auzitan defentsa burutzeko kontratazio prozedura hutsik deklaratzea

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 9an hartutako erabakiaren bidez, KON_NE_G0003 kontratazio-espeditari hasiera eman zaio, Bermeoko Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta BERUALAREN aholkularitza juridikoa eta edozein auzitan defentsa burutzeko zerbitzu kontratuari buruzkoa.

Bigarrena: Prozedura horren iragarkia Bermeoko Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratu da.

Hirugarrena: Gonbidapenak 2020ko irailaren 3an bidali dira emailez eta egun berean jaso dituzte lehiatzaileek.

Laugarrena: Gonbidapenetan zehaztu da proposamenak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa dela, gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epea irailaren 18an bukatu da.

Bosgarrena: 2020ko irailaren 21ean, AJS Abogados-ek proposamena aurkeztu du, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez.

Argudioak

Lehenengoa: Administrazio Klausula Partikularren Pleguko 24. klausulan, karatulako 15. atalean xedatutakoarekin bat etorritik, adierazten da lizitatzailerak 15 egun natural dituztela proposamena aurkezteko, gonbitea jaso eta hurrengo egunetik hasita.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400050B5700J8G7A6E1J0X5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/10/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/10/2020
15:09:07

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Bigarrena: Lizitazio-prozeduren izapidetze elektronikoa dagokionez, SPKLren XV. Xedapen Gehigarriaren bigarren atalak adierazten du legean arautzen diren kontratuak esleitzeko prozedurak izapidetzen direnean, horien ondoriozko jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoa hutsez egingo direla.

Aurrekoaren ildoari jarraituz, xedapen horren lehen atalak hauxe dio: *“los plazos a contar desde la notificación se computarán desde la fecha de envío de la misma o del aviso de notificación, si fuera mediante comparecencia electrónica, siempre que el acto objeto de notificación se haya publicado el mismo día en el Perfil de contratante del órgano de contratación. En caso contrario los plazos se computarán desde la recepción de la notificación por el interesado”*.

Hirugarrena: Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.7 artikulua adierazten du interesduna hainbat bidetatik jakinarazten denean, jakinarazpen-datatzat hartuko dela lehenengo datarena.

Laugarrena: Halaber, SPKLren 150.3 artikuluko 2. paragrafoan ezarritakotik ondorioztatzen da kontratazio-organoak lizitazio bat eman gabe utz dezakeela, dela eskaintzarik aurkeztu ez bada, dela eskaintzok pleguen arabera onargarriak ez badira.

Kasu honetan, prozeduran parte hartzeko eskaintza ez da epe barruan aurkeztu, hortaz, proposamena baztertu beharra dago. Orobat, hautagai bakarra baztertzek, zuzenean prozedura hutsik deklaratzeko dakar, eta erabaki horren berri ematea lehiatzaileari.

Bosgarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari dagokio, baina 2019ko ekainaren 21eko 1479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzarrak, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalaren, bere mendeko Erakunde Autonomoen eta BERUALAREN aholkularitza juridiko eta edozein auzitan defentsa burutzeko zerbitzuaren kontratazio-prozeduran AJS Abogados egindako eskaintza baztertzeko, epez kanpo aurkezteagatik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen ahal dozu.

Kodea:
07E400050B5700J8G7A6E1J0X5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 14/10/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/10/2020
15:09:07

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



BIGARRENA: Bermeoko Udalaren, bere mendeko Erakunde Autonomoen eta BERUALAren aholkularitza juridiko eta edozein auzitan defentsa burutzeko zerbitzuaren kontratazioa hutsik deklaratzeari, lizitatzailerik ez dagoelako.


HIRUGARRENA: Erabaki hau kontratatzailearen profilean argitaratzea, SPKLren 63.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

LAUGARRENA: Interesdunari jakinaraztea, erabaki honen aurrean dituen errekurtsoak adieraziz.

BOSGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400050B5700J8G7A6E1J0X5

Sinatua eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 14/10/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/10/2020
15:09:07

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0003
Data: 27/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

